Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

10/11/5 I 332

Sukatalde, sukaldari belaunaldi berria
Munduko soinu txikiaren oihartzuna Tolosan
Eider Rodriguez, Katu jendea
Komikilariak eta bertsolariak afari-txouan
Ekaitz Saralegi

Hamaika interpreteren beharra

Ardiaren balioa gutxituz, etorkizun gutxi

skunkfunk
people do funk
FALL WINTER 10
Kale Nagusia 21-23, Tolosa. Tel.: 943 67 38 62
www.skunkfunk.com

galtzaundi
euskara taldea

Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea. 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Amaia Goikoetxea Orbegozo, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkartea, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
Banatzaileak: Olatz Garmendia, Juankar Arregi
Idazkaria: Nora Olano
Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
Diseinua: Zigor Agirrezabala
gorik
Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 5.000 ale
Lege gordailua: SS-906/91
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOLOSAKO UDALA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburordetza
diruz lagundutako argitalpena

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburordetza
diruz lagundutako argitalpena

nonzer

Gainditzen -Tolosaldea-Goierriko Pertsona Gorren Elkartea-osatzen duten 20 kideetako bat da Julian Rodriguez, bera arduratzen da Gorren Komunitatearen VII. Sentsibilizazio Astearen eta aurten lehenengoz, Zeinu Hizkuntzan egindako I. Nazioarteko Laburmetrai Zinemaldiaren antolaketaz.

Elkarrizketa: Julian Rodriguez 8-11. orrialdeak

Erreportaia:
Ardiaren balioa gutxituz, artzaintzak etorkizun gutxi

Anastasio Balerdik 76 urte ditu. 34 Jon Ander Goñik. 22 urterekin hasi zen Anastasio artzain, eta, 17rekin Jon Ander. Amezketan bizi dira biak. Urkibar baserrian Anastasio eta Otizen Jon Ander. Parez pare dira bi baserriak. Eta, aurrez aurre jarri ditu Galtzaundik ere artzaintzaren lehenaz, orainaz eta geroaz hitz egiteko. Bien esanetan, artzain izateko ardiak gustatu egin behar dira. "Beraien ondoan egotea komeni izaten da. Ezagutu egin behar dira. Arrazari beti onenean segitu behar zaio. Ona dena aurrera egiteko utzi egiten da. Txartxagoa dena kendu egiten da". Hala azaldu digu Anastasiok.

16-18. orrialdeak

Iritziaren leihoa: Txomin Garmendia eta Garbiñe Biurrun	4-5
Normalizazioa: Hara, zergatik ez euskaraz? (IV) Erakunde publikoetan	6-7
Eskualdeko albisteak: Sukatalde, sukaldari belaunaldi berria	12-13
Eskualdeko albisteak: Munduko soinu txikiaren oihartzuna Tolosan	14-15
Irakurlearen begietatik: Eider Rodriguez, Katu jendea	19
Kultura: Komikilariak eta bertsolariak Galtzaundiren afari-txouan	20-21
Kirol saltsa: Ekaitz Saralegi	22-23

Mitxelena oroituz

Txomin Garmendia
Bertsolaria

Askotan ditut gogoan bertsolari lagunak, mundu ontatik junak; gaur, Joxe Joakin Mitxelena oiartzuar bertsolari aundi aren aitamenak egin nai nituzke borondaterik onenez.

Amaika ibilli eta saio egin gendun alkarrekin, itz gutxitan esateko, erri-bertsolari ugari bat izan zan Mitxelena; eta ari zan momentu artan sortzen zitzaiona kantatzen zuna. Au da, bertsolari asko gera saioaren aseran bi edo iru bertso onak ditugunak, eta luzera eskasten geranak; Mitxelena batekoz bestera zan; saio luzean zalea zan eta aseran baiño obeak kantatuko zitun gerora. Zer esan nai du orrek? Bertsoak kantatu bear ziran garai artan bakarrik nekatzen zula burua gauz orretzaz. Adibidez, Xalbador, egindako saioarekin konporme ez bazan, etxerakoan, izan zitun gaiari bertso obeak moldatzen saiatuko zan; zer esanik ez artzantzan zebillenean eta abar. Ori bere "Odolaren mintzoa" liburuan garbi aitortzen du. Mitxelenak etzun orrelakorik, ark bertso lanak bukatzean beste negozio batzutan nekatuko zun burua; again, Xalbadorren jokaera izan balu bertsolari obea ere izan zitekean, baiña emen bakoitza geran bezelakoak gera eta aurrera.

Guztiok geran bezala diru-zalea zan Joxe Joakin ere, langintza prankotan saiatu zan; Pasaiako kaian lanean ezagutu nun nik, itsas-ontzi aundi oietan ixilka etortzen ziran tabako, erari eta abarrekin saiatuko zan eta aurrez nion bezela, bertsogintzari emango zion arretarik gutxiena. Denboraz Atano X'na pelotariarekin sozio, erretegia jarri zun "Atamitx" izenarekin eta irabazirik aundienak andik izan zitula esango nuke. Bixigua eta txuleta jateko leku oberik gutxi zan garai artan.

Bertsoetara joaten zanean, berriz, irabaziari baiño geiago erreparatuko zion ondo eta asko kantatzeari, eta laguna menderatzeari. Alde ortatik garai bateko bertsolarien antza zula esan liteke. Txapelketa zalea ere bazan, baiña, epaimaikoen erabakiarekin etzan beti konporme geldituko. Bertsolari ona zan Mitxelena, baiña berak uste zun ainbeste ez; alde ortatik irabazi baiño geiago galdu egiten zula esan bear.

Bertsolari artean aoz-ao izan dan asarrerik gordiñena, Basarri eta Mitxelenaren artean izandakoa izango da 1952'ko Sanistebanetan Oiartzungo plazan. Ara zer dion Juan Mari Lekuonak, Antton Kazabonek Mitxelenari buruz egindako liburuaren itzaurrean: "Hizbide bizia zebilen herrian, urtero bezala festetan kantatuko zuten bertsolarien izenak programan ematerakoan, Mitxelenarena ez zetorrelako, nahiz eta beste lauren izenak aipatzen ziren. Hori izan zen herrian marmarra sortu zuen gertakaria. Alkate jaunak jakin zuelarik zenbait bertso-zaleren urduritasuna, esan zuen ez zuela inolako eragozpenik Mitxelenak kanta zezan, eta hala egingo zela.

Eguna etorri zenean, goizparteko saioan ez zer ezer gertatu, ohiko bidetik joan zenez dena. Arratsaldean, ordea, biztu zen sua. Nork zeinekin kantatuko zuen bikoteak egiten hasi zenean Basarri, Mitxelenak behartu zuen Basarri berarekin kantatzera". Andik aurrera izan ziran ortik onerakoak!

Juan Mari Lekuonaren aitormenetan gauz batek arritzen nau: goiz parteko saioan etzala asarrerik gertatu. Bazkalorduan Mitxelena norbaitek berotu ote zun? Izan liteke.

Saio luze eta asarre artan Mitxelena salatari agertu zan, eta Basarrik bere errugabetasuna adierazten zun.

Orduan etzegon manetofonik, eta aotik-aora artutako bertsoak pranko zabaldu ziran; aotik-aora dabiltzan bertsoak beti ez dira zeatzak; baiña jartzera nijoan lauak ez dute oker aundirik izango. Ziartuenik ez dira izango jarraieran kantatutakoak ere.

Mitxelenak:
Bertsolarien artean dago
gaitz bat oso itsusia,
begietako bista ona-ta
alkar ezin ikusia.
Basarri aurre izan balitza
jardin baten nagusia,
loreak moztuko zituen da
indartuko zan sasia.

Basarrik:
Ala ez diran gauzak esanda
ni jartzen nazu kezketan,
Mitxelenari beti lagundu
egin diot nere ustetan.
Da kontu oriek esateko
lekuik ez al zan bestetan,
eskandalua jartzera al zatoz
nigana erriko pestetan?

Saio orren aurrez, "Arantzazu" errebistan, bertsolari batzun argazkiak etorri ziran beren istori piska batekin eta Mitxelenarenik ez. Ondoren datozten bi bertsoak ez dute beste oarrik bear noski.

Mitxelenak:
Eskandalu au zergatikan dan
garbi esango dizut nik,
Arantzazutik ateratzen dan
errebista bat leturik.
An buru asko zetozen baiña
etzan ikusten neurerik,
uste al zendun Oiartzun ontan
etzala erretraturik?

Basarrik:
Beraz Oiartzun gauza orrekin
zu al zaude sentitua,
nik'e kanpora bota bear det
barrun ezin kabitua.
Danan aurrean galdu nai dezu
Basarriren kreditua,
da ni kulpatzaz jotze al nazu
praileak eskribitua?
Mitxelenak gertakizun ari buruz, au esan zidan bein: "Bertso aiek paperean edo manetofonoz artu izan balira, aiek izangoituan bertsoak emendik eun urtera ere". Basarrik, berriz, au zion kontu ori berritu genduan batean: "Orrek neri eman zizkidan lotsak! Nik dana barkatzen diot, baiña aztu ez'e…".

Auzia zeiñen alde erabaki bear dan nik ezin esan, biak munduko lanak egin zituzten eta onuzkero bertso saion batzuk egiñak izango dira adiskidetasun obean. Mitxelenak akatsak bazitun guztiok bezela, baiña bai biotz aundi bat ere; bertsotan bakarrik etzan ona. (G.B.)

Argi berriak

Garbiñe Biurrun
Epailea

Argia da objektuak ikusteko aukera ematen digun agente fisikoa. Argiari esker ikusten dugu inguratzen gaituen errealitatea. Argirik gabe ez ditugu koloreak bereizten, ez eta formak identifikatzen. Trebetasun eta gaitasun handiak behar dira argirik gabe errealitatea ondo identifikatzeko beste ezaugarriak kontuan harturik. Argiak, beraz, errealitatea ondo ezagutzeko erraztasuna ematen digu.

Errealitate soziala konplexua da eta, gainera, argia falta bazaigu, konplexuagoa dirudi. Errealitate batek alde asko ditu, aurpegi asko erakusten dizkigu eta ezaugarri desberdinek osatuta dago. Normalean, iluntasunak ezjakintasuna dakar, eta honek askatasun falta.

Azken egunotan badira, beste hainbat gairen artean, bi gai nagusi gure hedabideetan. Batetik, gure gai santua; bestetik, elkarte gastronomikoak eta emakumezkoen eta gizonen arteko berdintasuna. Nire iritziz, argi berriak argitzen ari dira bi gai horiek, hau da, errealitatearen bi aurpegi horiek.

Bakeari buruz asko hitz egiten ari da, ohi den bezala. Baina oraingo honetan badirudi lortzea posible dela. Batasunari lotutako ezker abertzaleari eskatutako hausnarketa aurrera doala diote bere kideek eta prozesu horren seriotasunaren erakusgarriak eskaini dizkigute. Badirudi, gainera, horren ondorioz ETAk berak ere bere "hausnarketa" egin(go) duela: ezinbestekoa du. Errealitatea argitzen ari da eta errazago ikusten da: nabarmenagoa da askok pairatu duten sufrimendua eta nabarmenagoa, oraindik ere, etorkizuna eraikitzeko egia, apaltasuna eta eskuzabaltasuna guztiz beharrezkoak ditugula. Argiak erakutsiko digu orain arte ikusiezina egiten zitzaiguna eta, beharbada, ez da atsegina izango. Agian gogorra egingo zaigu argiak agerian uzten duen errealitatea, baina aurrera egiteko hau izango da abiapuntu sendo bakarra. Litekeena da, baita ere, bide hori zaila izatea eta bertan oztopoak aurkitzea, baina horretarako ere bakearen eta askatasunaren argia izango dugu gidari, hainbat eta hainbat pertsonarentzat eta talderentzat orain arte izan den bezala.

Batzuetan gure errealitatea ondo ezagutzen dugula uste dugu. Baina askotan ezaguera hori partziala da; hau gertatzen da normalean argiak erakusten digun gunea txikia denean. Kasu horietan, argitik kanpo badago beste errealitate bat eta bera ezagutzeko argiaren fokua zabaldu behar izaten da. Horrelako zerbait gertatzen da elkarte gastronomiko eta "kultural" batzuekin. Ezagutzen ditugu, bai, eta islatzen duten errealitate mugatua onartzen ere bai, argiaren falta dugulako. Niri, egia esan, bost axola gizonezko batzuek elkartu nahi badute emakumezkoen presentzia jasan ezin dutelako; bost axola gizonezko batzuek etxetik kanpo egon nahi badute etxekoen presentzia mugatzailea zaielako; bost axola gizonezko horiek non, norekin edo zertarako elkartzen diren eta bost axola elkarte horiek izaera pribatua badute. Baina, zoritxarrez, errealitatea ez da hor bukatzen. Tamalez, elkarte horiek eta gizonezko horiek toki eta presentzia publikoa dute: hainbat "kultur" ekitaldi antolatzen dute babes publikoarekin eta Udal Festa Batzordean, adibidez, parte hartzen dute. Errealitatea beraien ikuspegitik ikustarazten digute eta "kultura" eta harreman pertsonal eta sozialei buruz duten ideia zabaltzen dute, beste errealitateak eta ideiak ilunpetan utzirik. Eta nik ez dut horrelako "kulturarik" nahi. Nik nahi dudan kultura zabala da, begi askok eta askok eta hizkuntz eta usain askok osatutakoa, kolore askok eta askok alaitutakoa eta, azkenik, pertsona askok eta askok sortutakoa eta sentitutakoa. Horretarako denok gara beharrezkoak eta ni behar ez nauena ez dut nik behar.

Eta ez Udalak, ezta beste erakunde publikoek ere ez lukete horrelako talderik behar, argiari foku oso estua jartzen dion talderik. Argia behar dugu, indartsu eta zabala, pertsona guztiak erakusten gaituen argia, errealitatea ezagutzeko eta libreago bizi ahal izateko.

Hara, zergatik ez euskaraz? (IV) Erakunde publikoetan

Zenbat aldiz gertatu zaizu Correosera, Gizarte Segurantzara edo bestelako bulego batera joan eta gaztelaniaz egin beharra? Zer eskubide dauzkagu halako egoeren aurrean? Eskubide berak ditugu estatuaren mendeko erakunde publikoetan eta Jaurlaritzan edo udaletxean?

Imanol Haro
UEMAko hizkuntz normalizatzailea

Aurreko aleetan, euskaldunok saltokietan eta osasun zentroetan ditugun hizkuntz eskubideei buruz jardun genuen. Gaurkoan, eskubide horiek erakunde publikoetan zertan diren ikusiko dugu.

Zer hizkuntz eskubide ditugu erakunde publikoetan?

Erakunde publikoekin ahoz nahiz idatziz euskaraz egiteko eta egin diezaguten eskubideak euskararen ofizialtasunaren ondorio dira. Euskara EAEn behintzat ofiziala denez, euskaldunak eskubidea du administraziori euskaraz zuzentzeko (bai ahoz, bai idatziz), baita administrazioko langileek herritarrari euskaraz egiteko ere.

Praktikan, ordea, arazo hau sortzen da: zer egin dezakezu Correoseko, Gizarte Segurantzako edo bestelako bulego batera joan eta leihatilako langileak euskara ulertu ere egiten ez duenean? Zure hizkuntz eskubideak gauzatu ahal izateko, langile euskalduna eska dezakezu, eta administrazioak langile euskalduna jarri behar du. Hala jasota dago legean eta bulegoz bulegoko hamaika protokolotan.

Beste arazo hau ere oso ohikoa da: administrazioak (ministerio batek, Jaurlaritzak, epaitegiak, Ertzaintzak…) gaztelania hutsezko agiri bat helaraztea. Kasu hori, berez, ez da lege-haustea: lege-haustea da euskaraz eskatu eta erakunde publikoak hori ukatzea. Izan ere, gaurko EAEko legediaren arabera, argi eduki behar da honako hau: euskaldunak espresuki eskatu behar dio administrazioari idatzizko informazioa euskaraz bidaltzeko. Hortik aurrera, berariazko eskaera hori betetzeko betebeharra dute erakunde publikoek.

Baina, zer gertatzen da hori betetzen ez dutenean?

Eskubide batzuk aitortuta izan arren, errealitatea oso bestelakoa izaten da sarritan. Lege-hausteak egoten dira, eta lege-hauste horien erantzuleak erakunde publikoak dira. Nolanahi ere, hizkuntz eskubideen urraketekin ohikoa den moduan, ez dago zigorrik lege-hauste horietarako.

Baina urraketak urraketak dira, eta isiltasunaren zakura bota ordez hizkuntz eskubideen aldeko erakundeek horren berri edukitzea komeni da. Haiek hartuko dute erantzukizuna halakoak konpontze bidean jartzeko.

Erakunde guztiek dituzte erreklamazioak jasotzeko bideak: erreklamazio orriak, web guneak… Bide horiek erabiltzea zilegi ez ezik komenigarria ere bada: ezer egiten ez badugu, nola nahi ditugu gauzak aldatu?

Beste bide batzuk ere badaude: kexa Elebidera (012) edo Hizkuntz Eskubideen Behatokira (902194332) bideratzea. Internetez ere bidera daitezke kexak.

Eta Tolosaldean, zer?

Tolosaldean, herritarrek behin baino gehiagotan salatu dituzte gorago adierazitako urraketak: Renferen aurka, ahozko tratua gaztelaniaz bakarrik delako; epaitegien aurka, agiriak gaztelania hutsez bidaltzeagatik; Ertzaintzaren aurka, isunak gaztelania hutsez jartzeagatik…

Kultur ekitaldiak

Azaroak 11
Nazioarteko Trikitixa Jaialdiarako bina sarreren irabazleak:
- Mattin Amundarain
- Juan Inazio Hartsuaga
Azaroaren 5ean, 22.00etan Tolosako Leidor Aretoan.

Azaroak 11
Ipuin kontalaria
Idoia Sanchez
Gazteluko elkartean
17.30etan

BENTA ALDEA
JATETXEA
TEL.: 943 654 079
ANOETA
-TOLOSA BIDEAN

SANZ arraindegia
Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85
Nafarroa etorbidea, 7 behea
20400 Tolosa

HALCON BIDAIAK
Bidaiarik erakargarrienak
Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113

errotatxo okindegia
Andia kalea, 3
Tel.: 943 655 492
Amaroz, 9-A
Tel.: 943 671 038

Julian Rodriguez

“Besteei komeni zaienean interpretea jartzen dute”

Naiara Roldán de Aránguiz

Gainditzen -Tolosaldea-Goierriko Pertsona Gorren Elkartea- osatzen duten 20 kideetako bat da Julian Rodriguez, bera arduratzen da Gorren Komunitatearen VII. Sentsibilizazio Astearen eta aurten lehenengoz, Zeinu Hizkuntzan egindako I. Nazioarteko Laburmetrai Zinemaldiaren antolaketaz. Pertsona geldiezina, elkartearen izenak dioen moduan egunetik egunera gainditzea du erronka. Gorrek egunekotasunean dituzten arazo eta konponbideez mintzatu gara berarekin. Julian Rodriguezen kritika zuzenei ahotsa ematen lagundu dio bere interpreteak Galtzaundirentzat.

Gainditzen Elkartea

Noiz hasi zen lanean Gainditzen eta zeintzuk dira bere egitekoak?

2002ko azaroan sortu zen, pertsona gorrentzako elkarte bat sortzea zen gure helburua; gure beharrak asetzeko, gehien bat, komunikazio oztopoei aurre egiteko (interpreteak lortzea, haurrek ikastolan dituzten beharrei aurre egitea, argiztapen egokitzapenak egitea). Arazo ezberdinei erantzuna emateko sortu zen. Sentsibilizazio jarduerak ere lantzen ditugu. Eta batzuetan zeinu-hizkuntzako ikastaroak ere antolatu izan ditugu.

Zer nolako balorazioa egiten duzu ospatu berri den Gorren Komunitatearen VII. Sentsibilizazio Asteari buruz?

Oso positiboa. Adibidez, kalean antolatutako komunikazio oztopoei buruzko erakusketa oso garrantzitsua izan dela esan digute, arazoa gizarteratzeko balio izan du. Antzerkiei dagokionez ere oso pozik gaude. Jendea konturatu da antzerkia zeinu hizkuntzan egiterakoan ahozko hizkuntzaren oso ezberdina dela. Azkenean, hori da helburua. Ikastoletan ere hitzaldiak eskaini ditugu, hau ere sentsibilizazioa da, informazioa ez zegoen tokian orain badago. Tolosaldeko ikasle zein irakasleek beti esaten didate hau beharrezkoa dela baina boluntario moduan ezin nahi beste ordu egin.

Zer nolako aldaketa jasan dituzue jardunaldien antolaketan zazpi urte hauetan?

Aldaketak egon badaude. Programa ez da berdina, lan egiteko modua ere ez da berdina. 1. Sentsibilizazio Astea kongresu bat izan zen, oso interesgarria eta parte-hartze handia eskuratu zuena. Ondoren pentsatu genuen sentsibilizazioa antzerkira bideratzea, eta beste urte batean ordea musikara, zeinu-hizkuntza musikarekin erlazionatzea.

Orain sentsibilizazioa ez dela pertsona gorrei soilik zuzendu behar hausnartzen ari gara, euren asebetetzerako, gizarteratzeko proiektua izan behar da. Gure arazorik handiena ordea batzordean lan boluntarioa egiteko gero eta jende gutxiago gaudela da. Jarduerak murriztea pentsatzen ari gara; gizarteratzean lan egin nahi dugu, hori da gure erronka. Etorkizunean pertsona bat kontratatu nahiko genuke, Euskal Gorren Federazioarekin lanean ari naiz, tekniko edo interprete bat izango litzateke. Ia 2011ko urtarriletik aurrera lortzen dugun, dena diru-laguntzaren araberakoa izango da.

Eguneroko bizimodua

Zer nolako arazoak izaten dituzue zuen egunerokotasunean?

Nik gazteetatik komunikazio oztopoak pairatu izan ditut. Zintzoki esateko, bi arlotan nabarmenduko nituzke arazoak; alde batetik, gizartearekin komunikatzeko orduan eta bestetik pertsona gorren artean. Hausnarketa egin behar dugu, zer nolako beharrak ditugun detektatu eta nola erantzun aztertu behar dugu. Lan hori egin gabe dago.

Azkenen finean, jendeak bilatzen duen irtenbidea laguntzak eskatzea da eta hori ez da modua. Guk, pertsona gor moduan, gure beharrak aztertu eta gure behar eta eskubideak bete daitezela eskatzeko lan egin behar dugu.

Historikoki, izan dugun arazo larrienetariko bat hezkuntzarena izan da. Orain erronka hauei aurre egitea zaila suertatzen da. Orain arte ez da eskolarako sarbiderik egon, unibertsitatera sartzeko eta zikloak ikasteko arazo larriak izan ditugu. Guk gainerako pertsonekiko lan baldintza berdinak eskatzen ditugu baina konturatu behar gara ikasketarik ez dugula, ez dugula titulurik. Oinarrizko egoera, beraz, oso ezberdina da.

Enpresa buruek pertsona gorrekin komunikatzea zaila dela esaten dute. Enpresak erratuta daude; pertsona gorrekin komunikatzeko pazientzia behar da eta informazio asko eman behar denean, interprete bat jarri behar da. Komunikazioa eman dadin, egokitzapena alde bietatik eman behar da.

Osasun arloari dagokionez, komunikazio osoa eman dadin, interprete bat egon beharko litzateke. Nik informazioa erdipurdi ematen badut eta medikuak ulertutakoa konpontzeko *pastilatxoa* ematen badit, ez da benetako harrera gauzatzen.

Kultura mailan ere antzeko zerbait gertatzen da. Tolosan kultur jarduera garrantzitsua dago baina pertsona gorrek ezin dugu hori probestu; ez da interpreterik jartzen.

Lana bilatzeko orduan, pertsona gorrek oso zaila daukate. Ez da erraza. Adibidez, INEM edo Lanbidera joateko interpretea behar izaten dugu. Entzuleek bat-batean erabaki dezakete zer egin, guk ordea aurretiaz prestatu behar dugu dena, interpretea eskatu ahal izateko. Gerta daiteke interpreterik ez egotea eta eguna aldatu behar izatea.

Nola hobetu daiteke egoera hau? Zer nolako konponbideak bideratu daitezke?

Garrantzitsua da, orain behintzat Zapateroren Gobernuak zeinu-hizkuntza onartu du. Baina ez da nahikoa. Aztertu beharko da zein behar dauden, normalizatu behar da. Adibidez, pertsona gor baten etxean sutea suertatuz gero suhiltzaileak joan behar dira, noski, baina behar horiei nola erantzun oraindik ez dago normalizatua.

Administrazio guztiek badaukate pertsona gorrek duten arazoaren berri baina diruaren aitzakiaz ez diote erantzun bat ematen. Instituzio gisa derrigortuta daude behar horiei erantzuna ematera. Gurpildun aulkian dabilenentzat barrera asko kendu dira, erantzun asko eman zaizkie. Baina zer gertatzen da gurekin? Ezintasuna duten pertsona batzuei erantzuna eman zaie eta guri ez zaigu eman. Audiofonoak, interprete gehiago jartzea irtenbidearen hasiera izan daiteke. Batzuetan gainera gure arazoak pertsona nagusiek dituzten gorreria

arazoekin erlazionatzen dira eta oso ezberdinak dira. Gu garatu, hobetu nahi dugu baina gizarteak ez digu laguntzen, ez digu baliabiderik ematen.

Ezberdintasun asko nabaritzen dituzue gorren eta bestelako gabeziak pairatzen dituzten pertsonen artean?

Bai, zintzotasunez baietz esan behar dut. Itsuek laguntza handia dute, ONCE oso erakunde aberatsa da, baliabide asko dituena eta guk ez dugu horrelakorik. Guk informazio asko galdu dugu, informazio eskasa dugu eta laguntza handia behar dugu. Guk ere lana egin behar dugu, esfortzua egin behar dugu baina horretarako baliabideak behar ditugu.

Zer nolako garrantzia hartzen du interpretearen paperak zuentzat?

Oso garrantzitsua da. Hor ematen da komunikazio zubia, komunikazio askerako beharrezkoak dira.

Zein arlo dira garrantzitsuenak edo premia gehien dutenak komunikazio arazo hori konpontzeko?

Orokorrean beharrik handiena interpretearena da. Entzumenarekin informazioa jasotzen asebetetzen diren moduan guk zeinu hizkuntza behar dugu. Telebistari dagokionean azpitituluak egoten dira baina hauek ere politikoki erabiltzen dira, politikariak egoistak dira. Gobernu debateetan soilik jartzen dute interpretea. Baina zergatik ez dute jartzen albistegietan? Beren intereserako jartzen dute. Politikariak euren alde begiratzen dute, ez gorren alde, gutxiesten gaituzte.

Historian zehar zergatik egon da zeinu hizkuntza debekatuta?

Irakasleak apaizak zirenean gorrek asko sufritu dugu, ahozkotasuna erabiltzera behartuta geunden, eta gero adibidez elizan, elizkizunetarako interpretea jartzen zuten, erlijioari buruzko hedapena eman zedin, komeni zitzaielako. Orain politikoei komeni zaienean ere interpretea jartzen dute. Beste estatu batzuetan, Frantzian adibidez, albistegietan interpretea jartzen dute. Hemen larunbatero ordu erdiko saioa egiten dute, ez da nahikoa.

Azpitituluen gaiaz ari garela, irakurtze-idazte horrek zailtasunak sortzen dizkizue, zuen ama-hizkuntza ez den heinean?

Horrela da bai. Guk historikoki idazketarako arazoak izan ditugu, orain teknologia berrien garapenari esker gero eta gehiago erabiltzen dugu idazmena, baina oraindik ez daukagu lengoaia hau guztiz jasoa.

Telebistan eta filmak ikusten ditugunean, azpitituluak jartzen dizkigutenean ez da literalki pertsonaiek esaten dutena ageri, testu egokitzapena egiten dute. Ez da informazioa osorik ematen.

Nik uste teknologiaren garapenarekin hobekuntza eman dela (bideo-deiak, webcam-ak, argien teknologia) baina kontua da giza baliabideak behar direla; interpreteak. Teknologia berrien garapenak hobetu egin digu bizitza baino egunerokotasunean arazo asko ditugu, askok unibertsitate ikasketak albo batera utzi behar izan dituzte zeuzkaten zailtasunengatik. Formazio mailan arazo larriak izaten ditugu.

Nire esperientzia pertsonaleko pasarte bat zehaztuko dut. laz Beasainen diseinu grafikoari buruzko kurtso bat egiteko izena eman nuen INEMen eta ez zidaten interpreterik jarri, 400 orduko ikastaro batean. INEMi eskatu eta %10ean baino ez zidaten interpretea jarri. Ate joka eta borrokan ibili nintzen, ikasteko gogoa daukat baina ez dut laguntzarik jasotzen. Ikastaro honetan interpretea jarri zidatenean, orduan heldu zitzaidan informazioa, orduan hasi nintzen galderak egiten, orduan hasi nintzen egiten ziren galderei erantzun ematen, orduan hasi nintzen beste ikasleen maila berean egoten. Interpreteak alde egiten zuenean ordea, nire gutxiespen egoerara bueltatzen nintzen.

Zeinu hizkuntza umetatik eskolan guztioi erakutsi beharko litzaigukeela uste duzu?

Bai. Ofizialki homologatuta egotea da lehen pausua eta ondoren hedapena eman behar da. Momentuz ez da ofiziala, norma onartuta dago baina ez da ofiziala, momentuz ezin da derrigortu. Nik Aransgin lan egiten dut; Ume Gorren Gipuzkoako Guraso Elkartean. Bertan aholkulari lanak egiten ditut, irakasle laguntzailea naiz, gurasoei informazioa ematen diet, ume gorrei nola erantzun. Gurasoak oso pozik daude ematen diedan informazioarekin, nik sufritu dudanarekin eta nik bizi izandako esperientziarekin formazioa ematen diet. Euren seme-alabek pertsona gorrekin nola portatu orientatzen ditut. Pertsona gorra izateak arazo batzuk izatea suposatzen du, nik txikitan pairatu ditudanak. Goiztiarki laguntza ematen dugu, etorkizunean ume horrek arazo horiek eduki ez ditzan. Asko dira eman beharreko laguntzak, asko direlako arazoak.

Zeinu hizkuntza laburmetrai zinemaldia

Azaroaren 20an Tolosako Leidor Aretoan Zeinu Hizkuntzan egindako I. Nazioarteko Laburmetrai Zinemaldia ospatuko da, goiz eta arratsaldeko sesioan, 11.00-14.00 eta 16.00 -19.15 bitartean. Film labur hauek Ingalaterran, Italian eta Bartzelona, Madril, Cuenca, Toledo edo Murtzian dute jatorria. Sarrera, egunean bertan, Leidorreko leihatilan eskuratu ahal izango da goizeko 10.00etatik hasita.

Zer nolako garrantzia du jaialdi honek kontutan izanda film guztiak gorrek egindakoak direla?

Guztiz garrantzitsua da, horregatik gainera. Gu ohituta gaude entzuleen gizartean egindako filmak ikustera, beti azpitituluekin.

Orain dela 4-5 urte modan jarri zen laburmetraiak egitea, pertsona gorrak apurtxo bat berandu genbiltzan, gizarteak pauso hori aurretiaz emanda zuen, orduan gu hasi ginen metraje laburreko filmak zeinu hizkuntzan egiten. Teknologia berriei esker, ordenagailuko programak pertsona gorrentzako eskuragarri zeuden. Ez gara profesionalak, horretarako ere diru-laguntzak behar dira.

Ez da lan erraza. Aurten laburmetrai jaialdirako ez dugu diru-laguntzarik izan. Sentsibilizazio jardunaldietarako bai eta aukera eman ziguten diru hori ere jaialdi honetarako erabiltzeko,

kontziente direlako ditugun mugetaz. Eusko Jaurlaritzari diru laguntza eskatu diogu baina erantzunaren zain gaude.

Nola egiten da laburmetrai horien aukeraketa?

Zaila izan da. Sariak eman behar ditugu eta ez da erraza. Aurten 21 film aurkeztu dira, 4 kanpoan utzi eta 17 eskainiko ditugu. Azaroaren 1eko zubia aprobetxatuz Milanera joango naiz Laburmetraien Nazioarteko III. Jaialdira, guk egiten duguna hedatzeko. Datorren urterako ere bertatik materiala ekar genezake. Hemen oso esperientzia gutxi dago laburmetraiei dagokienez, gutxika ikasten joango gara.

Zer nolako sariak banatuko dituzue?

6 sari banatuko dira; pelikula, zuzendari, muntaia, gidoi, aktore eta aktoresa onenari saria. 1.000 euroko saria gehi txapela, bertako irudiren batez lagunduta. Pelikulak zeinu hizkuntzan eskainiko dira baina azpi titulazioa egongo da; alde batetik, atzerrian egindako filmetako zeinu-hizkuntza itzultzeko eta bestetik ere gainerako gizarteak azpituluak beharko dituelako.

Tolosaldeko aktore edo langilerik ba al dago film labur hauetan?

Ez. Baina beharbada hurrengo edizioan egongo da. Nik badut gidoi bat prestatua, ez dakit aurrera aterako den. Ea datorren urteko sentsibilizazio asterako aurkezpena egiteko moduan ote garen.

Xirimiri
Txokolategia
Xabier Izagirre
Gosariak eta meriendak
Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA
Argi lanak
Iluminazioa
Antenak
Iurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amaroz, 21,
943 675 513
20400 TOLOSA

Zumardi
SEGUROS BILBAO
Aholkularitza integrala
Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Martin Eceizabarrena
Instalazio
erreforma
Konponketak
Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822

J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRAINAK
Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

Gipuzkoa eta Tolosa izenak mundu zabalera

Sukatalde, sukaldari belaunaldi berria

Herri bat munduan ezaguna egiteko bere nortasuna eta kulturatik abiatzea, erroari erreparatzea ezinbestekoa da. Euskal Herrian sukaldaritzak duen eta izan duen garrantzia ezin ukatu; gaur egun sukaldari izen handi eta ospetsu askok eta askok Gipuzkoak nazioarteko sukaldaritzan postu nabarmena izatea ahalbidetu dute. Euskal sukaldaritza gure amonen sukaldeetan, gure arbasoen eltze eta lapikoetan sukaldatu bada ere orain eta etorkizunean sukaldari gazteek zer esan ugari badute.

Naiara Roldán de Aránguiz

Sukatalderen (Gipuzkoako Sukaldari Gazteen Elkartea) helburua indarrak batzea da. Sukaldari profesionalak bilgune dituen erakundea iragan maiatzean elkarte bihurtu zen gastronomia maisuek lanbidea hobeto ezagutzeko, helburu komunak lortzeko eta euren filosofia, proposamen gastronomikoak, enpresak eta Gipuzkoa eta gure kasuan, Tolosa ordezkatu, helarazi ditzaketen jarduera eta ekitaldietan parte hartu eta sustatzeko.

Sukatalde 14 kidek osatzen dute. Donostiako 9 sukaldari: Edorta Lamo (A Fuego Negro), Xabier Díez (Xarma), Daniel López (Kokotxa), Gorka Arcelus (Agorregi), Rubén Trincado (Mirador de Ulía), Asier Abal (Bera Bera), Pablo Loureiro (Branka), Elena Arzak (Arzak) eta Aizpea Oihaneder (Xarma jatetxea). Bestalde, Hernani Ixak Salaberriak (Fagollaga), Hondarribia Gorka Txapartegik (Alameda) eta Irun Iñigo Lavadok (Iñigo Lavado) ordezkatzen dituzte, ordea.

Sukaldari hauekin batera Tolosaldeko ordezkariak ere Gipuzkoako irudi indartsua emateaz arduratuko dira gastronomia munduko sukaldean. Fronton jatetxeko Roberto Ruiz eta Hernialde jatetxeko Félix Garrido dira sukaldaritza berria eta Tolosa binomioari esanahi ematen lanean dihardutenak azken urteotan.

Aurrerantzean, besteak beste, euren agendetan ondorengo ekitaldiak jaso beharko dituzte Tolosaldeko sukaldariek profesional eta erakundeei sukaldari belaunaldi berri bat badela, Gipuzkoaren izena mundu zabalera zabaltzen dutenak, erakusten jarraitu nahi badute: Sukatalde web orrialdearen aurkezpena eta sare sozialetan kokatzea, Euskal Herriko Pintxo Txapelketaren epaimahaiaren gidari izatea, Donostia-Gastronomika Kongresuan parte hartzea Jatetxe Gomendatuak proposamenarekin edota Cook & Fashion ekimena abenduan burutzea.

Félix Garrido
(Hernialde Jatetxea)

Bere trebakuntza Martin Berasategui, El Bulli, Raco de Can Fabes edo Arzak jatetxe ospetsuetan osatu du; azken honetan 15 urtetan bigarren sukalde buru gisa aritu da. Arzak jatetxeko ikerkuntza taldeko kide izan da. Ekitaldi nabarmen askotan parte hartutakoa, horietariko adibide Ingalaterrako Erreginari eskainitako bazkaria, Juan Mª Arzakekin elkarlanean. Bere lanagatik aintzatespen ugari jasotakoa, kasurako, Sukaldari Gazteen 2008ko Euskadiko Txapelketaren 1. saria eta Gasteizko Goi Mailako Sukaldaritza Kongresuan sukaldari gazteen artean txapeldunorde. 2005az geroztik Tolosako Hernialde jatetxea zuzentzen du, bertako Sukalde Buru izanik eta inguruko produktuak oinarri dituela; 2005ean Tolosako Babarrun Pintxo Txapelduna.

Zergatik Sukatalde bezalako proiektu batean parte hartu?

Sukaldari gazteak bertan elkartu gaitezkeelako; bilerak, elkar trukaketak egin. Azken finean sukaldariok euskarri, laguntza hori behar dugu; horrenbeste ordu sukaldean igarotzen ditugunez, beharrezkoa da bilerak egitea, gure etxeetatik ateratzea; produktuak eta errezetak elkar trukatzea, hau da, zonalde bakoitzaren martxa ezagutzea.

Nola ordezkatu daiteke Tolosa elkarte barruan?

Elkarte barruan bakoitzak bere bihotzean norbanakoaren herria darama, ni Errenteriatik nator baina Tolosan nago. Sukataldek aukera ematen digu Tolosa ordezkatzeko, ahal den tokietara eramatea, bertako gastronomia eskaintzea.

Zein egoeratan dago euskal sukaldaritza berria, sukaldari gazteek egindako sukaldaritza?

Egoera onean dago, gastronomia oso anitza, ezberdina eskaintzen ari gara; bertako produktuarekin lan handia egiten da, etxeko produktuarekin. Barnealdean bereziki, ekoizlearekin harreman oso zuzena izaten dugu. Hemen harroak izan eta ia etxeko atarian dugu ekoizlea, produktua benetako izarra da.

Zein da zure jatetxeko/sukaldaritzako filosofia?

Produktua funtsezkoena da eta horren ondoren elaborazioa kontutan hartu behar da. Produktuak zer eskaintzen dizun ikustea beharrezkoa da, produktuaren oinarria errespetatu behar da, bere zaporea, sekula produktua aldatu gabe. Beti ere tradizioa bilatzen dugu, oinarrian tradiziozko errezeta dago baina produktua era ezberdin batean sukaldatzea bilatzen dugu.

Zein plater da errege zure jatetxean?

Bai zaila! Perretxiko *ravioliak foie*-rekin eta albaka olioarekin. Baina zerbait harro agertzekotan Oreindaingo baserritar batek ekarritako denboraldiko antxumea esango nuke. Honako hau ikustekoa da! Hemen produktuaren garrantzia nabari daiteke.

Zein ardorekin ezkonduko zenuke?

Abadía de la Oliva. Haritz ardoa da, erdi ondua. Aipatutako janariekin oso ondo uztartzen den ardoa, onddoekin esaterako. Upategi txiki bateko ardoa. Ni gehien arduratzen nauena pertsona ezagutzea da, bere produktuaz zer nolako iritzia duen. Gustatzen zait upeltegi honek bere ardoaz nola hitz egiten duen; gezurrik esaten ez duen pertsona da, apala.

Eta postrerako?

Alor honetako artista nire emaztea da, Arzaken urte askotan gozogin izandakoa. Bat aukeratuta Gorringo faltsua laranja txikiekin eta zuringo mozketarekin esango nuke. Flanaren tankerakoa da baina borobila, gorringo itxura du; ez da postre gozoegia. Ogi-torradak ere ikusgarriak dira, baina hauek bai gozozaleentzat direla.

Munduko soinu txikiaren oihartzuna Tolosan

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak antolatuta, bederatzigarren edizioa du aurtengo Nazioarteko Trikitixa Jaialdiak. Kursaal Jauregia eta Victoria Eugenia Antzokiko oholtzak alde batera utzi eta Tolosako Leidor Aretoa izango da jaialdiaren eszenatoki datorren azaroaren 5ean, ostiralean.

Naiara Roldán de Aránguiz

Oihane Egurtzak, erdi Donostiar erdi Tolosarrak eta Euskal Herriko Trikitixa Elkarteko zuzendaritzako kideak jaialdi honen nondik norakoaren xehetasunak eman dizkigu. Egurtzak aitortzen duenez hasierako urtetan (2002, 2003an) "atentzioa deitzen zuen trikitixa Kursaal batean entzuteak –hiriburuko antzoki berri eta dotore horretan- zerbait berria zen; orain ordean badirudi ez dela hain harritzekoa, eta fase hori pasata, tokiz aldatu nahi genuen". Hori dela eta, elkarteak Tolosa aukeratu zuen, zergatia ordea Tolosan bizi den mugimendu kulturalagatik eta inguruko herri askoren bilgune izategatik, zuzendaritza kideak berak dioenez.

Jaialdiko kartela osatuta dagoen honetan parte hartzaileen aukeraketa nola burutzen duten jakin nahi izan dugu eta Oihane Egurtzak pista batzuk eman nahi izan dizkigu. Elkarte barruan bada nazioarteko jaialdia antolatzeaz arduratzen den taldea, zuzendaritzak lagunduta, atzerrian ibiltzen diren trikitilarien aholkuekin eta interneteko myspace atari ezagunaren laguntzaz kartela borobiltzeko lanetan aritzen dira.

Partaide bakoitzak hiru bat kantu joko ditu, ordu laurden batez arituko da bakoitza. Denborak oso ondo neurtuta egon behar dira jaialdiak partituraren tempoetan barne izateko. Leidorrera bertaratzeko aukerarik ez dutenek gainera parada izango dute telebistaz jarraitzeko, ETB bertan izango da jaialdiaren grabaketan. Partaide bakoitzak bere unea izango du jaialdian baina antzokiko korridoreetan sortu daitezken kolaborazio eta prestaketak antolaketa guztietatik at geratzen dira. Beraz, sorpresaren bat egoteko aukeraz ezin mintzatu.

Aurtengo opari-ustekabea, ordea, aurkezleetan zehaztuko dela ezin ukatu. Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktore ezagunek gidari lana egingo dute euren antzerkietako umore puntua taularatuz, beraiek propio jaialdirako prestatutako gidoiarekin datoz, ez da beraz ohiko aurkezpen bat izango. Aurreko urtetan Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertsolariek edota kazetari zein trikitilariek egindako aurkezpen lanak ahaztu eta oraingoan emanaldi ezberdinerako prest azalduko dira entzuleak.

Bederatzi urte hauetan Oihane Egurtzak zehazten duenez ia 30 kanpoko jole ekarri dira, tartean, Portugal, Katalunia, Frantzia, Italia, Korsika, Errumania, Irlanda, Kolonbia, Nuevo Mexiko, Quebec… herrialdeak sorburu dituztenak. Ahalegin honen bitartez elkartearen helburuetako bat lortzen dela aitortzen du Egurtzak: "kanpokoa hemen erakustea

eta hemengoa kanpoan".

Hurrengo urteari begira zein toki izango den aukeratua, ezin jakin baina Tolosan esperotako arrakasta eskuratuz gero errepikatzeko inolako arazorik ez litzateke egongo. Plaza garrantzitsua izan daiteke soinu txiki diatonikoa munduko hamaika txokotan ere jotzen dela erakusteko; instrumentu berarekin zer nolako soinu diferenteak eta antzekoak, kasuan kasu, egiten diren munduan barrena zabaltzeko tokia izan daiteke.

Filipo Gambetta eta Claudio de Angeli (Italia)

Kutsu tradizionaleko autore musika soinu diatoniko eta gitarra akustikoaren bidez. Konposizioak hein handi batean Filipporenak dira, estilo ezberdinetakoak eta guztiz libreak. Mundu osotik ibilia da Genovako bikote hau; besteak beste, Kanada, Finlandia, Britainia Handia eta Suitzan. Biak ala biak musikari aktiboak, elkarrekin eta norbera bere aldetik musika taldeetan ibiltzen dira.

Imosima (Bretainia)

Bretainiako, Irlandako eta Quebec-eko musika sortzen du talde bretoi honek, Tolosan Bretainiako dantza eta festarako musika eskainiko du. Horrela, musika tradizionala eta sorkuntza berriagoak uztartuko dituzte Audrey Le Jossec akordeoi diatoniko jotzailearen gustu eta ukitu bereziarekin.

Blai Casals eta Manu Sabaté (Katalunia)

Blai Casals eta Manu Sabaté musikari gazteek Kataluniako musika tradizionalarekiko zaletasuna dute, biak folk munduan murgildurik daude. Blai Casals -eko akordeoi diatonikoa eta trikitixa jotzen ditu eta Manu Sabaté berriz, klarinete eta gralla jotzailea dugu. Bikotea *Festival de Música Tradicional y Popular de Calaf, Trobada amd els Acordionistes del Pirineu edo Carrefour Mundial de l'Accordeon a Montmagny* jaialdietan ibilia da.

Kupela Taldea (Euskal Herria)

Urola bailarako Zabale –trikitixa-, Larrañaga –panderoa eta ahotsa- eta Berastegi –perkusioa- hirukoteak osatzen dute. Erromeria giroan urte luzeetako esperientzia biltzen duen taldea da eta festarako eta dantzarako musika alaia egiten du. 2010ean 'Arriskua maite' azken lana aurkeztu dute.

Mirari Azkune eta Aitziber Otegi (Euskal Herria)

Kantu tradizionalen emanaldia eskainiko dute Tolosan. Biak txikitatik musika munduan murgildurik daude; Mirari Azkune 7 urterekin hasi zen trikitixa ikasten Iñaki Zabaletarekin eta Aitziber Otegi, 5 urterekin egin zituen bere hastapenak panderoarekin Tapiak irakatsita. Biek txapelketetan eta erromeriatan eskarmentua dute. Bikote moduan Euskal Kantu Txapelketan interpretazio onenaren saria eskuratu zuten musika laguntza modalitatean duela bi urte.

Xabi Aburruzaga eta Jose Urrejola (Euskal Herria)

Tolosan 'Denboraren naufrago' diskoko piezak eskainiko dituzte. Xabi Aburrazagaren trikitixa, Jose Urrejolaren flauta, whistle eta ewi-az lagundua izango da. Urtean zehar banda osoarekin herri zein folk jaialdi ezberdinetan kontzertuak eskaini ondoren –Ortiguiera, Mendebala eta Getxo- bikote formatuan ere kontzertuak eman dituzte –Quebec-eko *Carrefour Mondial de l'Accordéon*-.



ZALBiDE
Tolare Sagardotegia
Haragiak eta arrainak parrilan.
Ostirala, larunbata eta igande eguerditan irekita, iluntzetan egunero.
Zalbide baseria - Abaltzisketa
Tel: 943 652 176

SANTAMARIA
Ortopedia
• Garabi eta aulki elektrikoen erakusketa.
• Kirola egiteko ortopedia sail berria.
• Osakidetzarekin hitzarmena.
• Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.
Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610
TOLOSA

kutxa

Ardiaren balioa gutxituz, artzaintzak etorkizun gutxi

Anastasio Balerdik 76 urte ditu. 34 Jon Ander Goñik. 22 urterekin hasi zen Anastasio artzain, eta, 17rekin Jon Ander. Amezketan bizi dira biak: Urkibar baserrian Anastasio, Otizen Jon Ander. Parez pare dira bi baserriak. Eta, aurrez aurre jarri ditu Galtzaundik ere artzaintzaren lehenaz, orainaz eta geroaz hitz egiteko. Bien esanetan, artzain izateko ardiak gustatu egin behar dira. "Beraien ondoan egotea komeni izaten da. Ezagutu egin behar dira. Arrazari beti onenean segitu behar zaio. Ona dena aurrera egiteko utzi egiten da. Txartxagoa dena kendu egiten da". Hala azaldu digu Anastasiok.

Igor Mujika

Urte asko pasa ditu Anastasiok ardiekin mendian. "Udaran Aralarren ibili ostean, Villabonara joaten hasi nintzen negua pasatzera. Tokia estua zen, ordea. Albizturren ere izan nituen,... Gero, Hondarribiara eraman nituen. 20tik gora urte egin ditut ardiak Aralarretik Hondarribiara eramanez. Handik Amezketara etorri ginen. Azken bi urteetan, ordea, ez naiz igo Aralarrera. Kontentu izateko, ardi batzuk baserrian ditut".

Jon Anderrek, aldiz, Aralarretik bere baserrira jaitsi berriak ditu ardiak. Lehen arkumeak erditu dizkiote jada. Lan lotua du orain. Gauero, bi ordutik bi ordura esnatu behar izaten dute, txandaka, Jon Anderrek eta bere emazte Ainhoa Zuriarrainek. Ikuilutik ezin atera ibiltzen dira egunero. Gustoko lekuan aldaparik ez da izaten, ordea, eta, ilusioz bizi du urte sasoi hau Jon Anderrek. Bere esanetan, "ardi askok bixkiak erditzen dituzte. Ez bagara tentuz ibiltzen, kristoren nahaspila sortzen da. Erditzerako, besteen umeak maitatzen dituzte ardi batzuek, eta, gero, berea ez dute hartu nahi izaten". Halakoetan, artzainek lan handiagoa izaten dute, "edanarazi,... egin behar izaten zaielako".

Arkumeak, ordea, ez dira beti udazkenean erditu izan. Jon Anderrek argitu digunez, "garai batean arkumeak ez ziren errege egunerarte erditzen. Orain, aldiz, San Martinen bueltan hasten dira. Eta, goiz hasten den ardia, antzutu ere goizago egiten da. Maiatzerako errapeak sekatu egiten zaizkie." Hala, eguberri bitartean, arkumeak ahalik eta hobekien gizendu eta saltzen aritzen dira artzainak. Jon Anderren arabera, gehienez, arkume kiloko 5 euro jasotzen dute. Baina, jada, 4 euro eta erdira jaitsi omen da bere prezioa. Eta, Jon Anderren iritzian, "ez da dirua. Urte osoan 4 euro eta erdian egongo balitz ere,... baina, behin errege eguna pasaz gero, hiru eurotara jaisten da. Eta, hauek –Anastasioren garaiaz mintzo da- kiloko bostehun pezeta kobratzen hasi zirenetik urte asko pasa da. 30 urte izango dira, kiloko bostehun pezeta ordaintzen zirenetik".

Neguan, berriz, gaztak egiten pasatzen dute denbora gehien artzainek. 4.500 gazta inguru egiten ditu Jon Anderrek azaro erdi aldetik maiatzaren azkenera. Hainbat urtetan gaztak dirua eman dien arren, orain krisiaren ondorioak beraiek ere jasaten ari direla azaldu digu Jon Anderrek. "Salmenta motelduta dago. Kanpotik ekartzen delako, krisia dagoelako,... artzain asko dago gaztak ezin saldurik". Salmenten nondik norakoan sakonduz, batetik, bertako produktua ez dela baloratzen azaldu digu Jon Anderrek. Horren adibide, sagardotegiak jarri ditu. "Hogeita hamar euro inguru ordaindu behar da bazkaltzeko edo afaltzeko eta, bertako ezer ez da jaten. Ezta arraultzarik ere! Bakailao tortila eskatu eta, auskalo arraultzak eta bakailaoak nondik ekarritakoak diren. Haragia, zer esanik ez! Ez da baloratzen hemengo produktua. Eta, nire iritziz, kobratzen dutenarekin, bertako produktu gehiago sartzerik balegoke".

Bestetik, saltzeko modua aldatu egin dela esan digu. "Garai batean astean asteko gazta perira eraman eta saldu egiten zuten. Pisua ere orduan izaten du gaztak. Orain, aldiz, osasun sailetik jarritako baldintzak direla-eta, bi hilabetetan ezin dira saldu. Etxean eduki behar izaten ditugu. Gazta egin eta egin aritzen gara, kamerak bete eta bete. Lehen egindakoa saldu egiten zuten. Orain, arriskatu egiten gara".



Anastasiok jakinarazi digunez, garai batean "gazta eskuekin egiten zen. Makinarik ez zegoen. Hotz-kamerarik ere ez zen izaten. Eta, hain ona ez aterata ere jan egiten zen, gosea zegoelako".

Gazta asko egina da Anastasio eta, bere iritzian, "berdintsu eginagatik ere gazta ez da beti berdina ateratzen. Eguraldiak ere eragiten du". Bide beretik jarraituz, "garai bateko esaera da: esnea eta dirua negartiak dira. 200 ardi jeizten aritu eta, nahikoa da ardi batek errape min puntua izatea, nahastuta hura jeitziz gero, esne dena txartzeko. Eta, esne horrekin ez dago gazta onik egiterik", gaineratu du Jon Anderrek. 15 eurotan saltzen die gazta kiloa norbanakoei eta, 12 euro eta erdian, handizkako merkatariei. Harategietara, dendetara,... eramaten ditu, batik bat, eta, bere esanetan, "saltzaileek gazta egiten dugunok baino gehiago irabazten dute".

Uste berekoa da Anastasio ere. Bere iritzian, artzaintza egiteko baliabideak asko hobetu dira azken urteetan. "Lehen lan asko eta gogorra egin behar izaten zen. Neguan ere zakua burutik hartu eta hesiak ixten aritzen ginen. Jango bazen, etxean babarruna, garia,... egin behar izaten genituen. Auzolanean aritzen ginen bideak irekitzen. Mendian egoten ginen, eta, arkumeak jaiotakoan, hiru edo bi izan, zintzilik hartu eta ordubeteko bidea egiten genuen etxera eramateko. Orduko ardia, eta, baita artzaina ere, sufrituagoak ziren. Orain, lastoa, pentsua... ekarri egiten dira. Bideak ere asko hobetu dira. Baina, orain ere hemen dabilena negarrez ari da".

Eta, horren arrazoia, produktuaren balioan dago. Izan ere, artileak, larruak, ardi zaharrak,... garai batean bere balioa zuten. Orain, aldiz, ez da xoxik ordaintzen beraiengatik. Hala laburtu du artzainen egungo egoera Anastasiok: "garai baten aldean, gehiago laguntzen dute. Baina, maneiatu ere beraiek egiten dute. Hor dabiltzanek badakite hemen bizitzeko zenbat behar den. Eta, erleari egiten zaiona egiten digute. Erlea gogor aritzen da lanean eztia egiteko. Horrekin pasako da esan, eta, gainontzekoa kendu egiten zaio. Gurekin ere antzekoa egiten dute". Izan ere bere iritzian, artzainak negoziatu egin behar izaten du, eta, negoziazio horietan galtzaile ateratzen da. "Lehen gauzak garbiagoak ziren. Orain, gehiago negoziatu behar da. Eta, negoziantea beti iaioagoa da. Gu, artzaiok, umilagoak gara. Gehiago eman behar izaten dugu". Uste berekoa da Jon Ander ere: "laguntzak izaten ditugu biltegiak egiteko, artzain gaztea izateagatik,... baina produktuaren balioa asko jaitsi da".

Ildo horretan Anastasiok azaldu digunez, "nik ardi asko saldu dut kanporako. Orain, ordea, ardi zaharra kanpora eramateak ez du dirurik ematen. Eta, ezer gutxi ematen dutenak kendu egin behar izaten dira. Hura mantentzen ezin arituko gara, bada?" Ardi-larruaren balioa ere ezerezean geratu da. Garai batean, aldiz, "pezeta batzuk eskuratzen genituen", Anastasioren arabera. Horren adibide, ardi-larru osoagatik 1.000 pezeta ere jasotakoa dela gogorazi du. "Garai batean bere balioa bazuen. Galtzerdiak,... egiten ziren artilearekin. 25.000 pezetako etxe hutsa arkume larruarekin ordaindutakoa naiz ni", aitortu digu Anastasiok. Egun, aldiz, Jon Anderrek erre egiten du ardi-larrua.

Horren guztiaren ondorioz, "artzain asuntoa bukatzen ari da" esatera iritsi da Anastasio. Eta, horren erakusle, "txabola asko dago hutsik" azaldu du. Elkarrizketako une honetan, garai batean zenbat artzain eta zenbat txabolatan egoten ziren aipatzen hasi da Anastasio, eta, datu oso esanguratsuak bota ditu: "Muitzen –Aralarko gune bat da- hiru txabola beteta ezagutu nituen, eta, egun, hirurak hutsak daude,..." Hala jarraitu du, izenak esan eta egun dauden artzai kopuruak azalduz.

Ardiak, ordea, egon badaude. Izan ere, egungo artzainek garai batekoek baino ardi gehiago izaten dituzte, orokorrean. Jon Anderrek, esaterako, bostehun ardi inguru ditu. Anastasio garai bateko artzainen izenak botatzen hasi da. 120 ardi batek, 140 buruko artaldea besteak,... "Ardiak egon badaude, baina txabolak hutsik daude, artzainak falta direlako", ondorioztatu dute biek. Desagertu aurretik, gure artzainen lana baloratu eta ordaintzeko prest izango ote gara, sekula baino ardi gehiago kotxeetan itsatsita ikusten direnean?

Irakurlearen begietatik

Zazpi narrazio laburrez osatutako liburua da Katu jendea, Handik gutxira gaur eta Haragia lanen ostean Eider Rodriguezen hirugarren ipuin bilduma. Lan honetan ere idazle gazteak ohikoak dituen zorroztasuna eta pertsonen barruraino sartzeko gaitasuna erakutsi ditu, baita soberako esaldiak ezabatu eta, esaten duenaz baino gehiago, esaten ez duenaz hausnarketa eragitekoa ere.

Ione Gorostarzu
Irakurlea

Eider Rodriguez, Katu jendea

Era eta adin ezberdinetako pertsonaiak ageri zaizkigu orriz orri; gehienak, baina, eguneroko bizitzan aurki ditzakegun gizon emakumeak dira, bakoitza bere beldur, desio eta, batez ere, ezinekin. Izan ere, liburuan zehar etengabe ageri zaigun sentimendua frustrazioarena da. Horrela, lehen ipuinean adineko bi gizon emakume ageri zaizkigu, bakarrik biak, beraien katuak direla eta bata bestearengana hurbilduko direnak. Katu eta pertsonen arteko paralelismoa, koñakak betetzen dituen orduak, baina, batez ere, esan gabeko hitzak, eman gabeko pausuak eta hauek botatzen duten kiratsa dira ipuina amaitu ostean geratuko zaizkizunak. Hagina izenburupeko kontakizunean, berriz, edertasuna zeinen iheskorra den, eta alde egiten duenean ze nolako tragedia eragin dezaken erakusten zaigu; neska gazte batek ordura arte berea zuen estatusa galduko du hagina, eta honekin batera, perfekzioa galtzearekin. Hirugarren liburuan emakume bat ageriko zaigu, bere bost hilabeteko haurra lo dagoen bitartean zigarroak erreaz. Munduak ama izan berriez espero duen irudi zoriontsu, indartsu eta ilusionatua alboratuz, baina, ipuinak emakume bakartua bat erakutsiko digu, izenik gabea, ezeren gainetik eta, besterik gabe, ama baino ez den pertsona aurreikusgarria, arriskutik gabea, besteen beharrak betetzeko bizi dena eta kotizatu gabea. Omarren uda narrazioa dator honen atzetik; familia batek haur saharara ekarriko du uda pasatzera, eta berritasun eta azaleko pozaren azpian etxeko trapu zaharrak nabarituko ditugu, senar emazteen zein ama alaben artean, batez ere. Inkomunikazioa, tentsioa eta lehia bezalako sentimenduak bor-bor izango dira, baita desio ezkutuak ere. On the road kontakizunak hainbat euskaldunen astebururoko bidaia behartura gerturatuko gaitu. Musika, errepidea, restopak, eta bi lagun bidean kontu kontari. Seigarren ipuinean urteetan ukitu ez zuen aitaren herentziak Volvo berria erosi duen enpresaria ezagutuko dugu; diruaren eta diru nahiaren miseriak. Eta, azkenik, Louis Vuitton ipuinean bi neska gazte Parisen aberats itxurak egiten ariko, ez direna agertu nahirik.

Ez dago zoriontasunarentzat tarterik ipuin hauetan, ez, behintzat, zoriontasun oso edo harmoniko batentzat; aurretik aipatu bezala ezintasuna, bakardadea eta galera bezalako gaiak ageri zaizkigu orriz orri, eta, horretaz gain, aipagarria da edertasunak eta emakumeok eder izateko dugun beharra nola islatzen zaigun. Ipuin gehienetan hauek duten arazo iturria edertasun galdua da; laguna, alaba, beraiek baino politago izatea, gizonezkoentzat desiragarri ez izatea… eta azkenerako horrek itodura, amorrazioa eragiten dizu.

Orokorrean liburu gomendagarria iruditu zait, Eider Rodriguezen gainerakoak bezala; ongi idatzia, kaleko edozein pertsona pertsonaia bihurtzen duena, eta guztion egunerokotasuna osatzen duten detaile, beldur eta obsesio txiki oro argitara aterarazten dituena.

BIXENTE GOROSTIDI ETA UNAI MUÑOA BERTSOLARIAK

ASISKO URMENETA ETA DANI FANO MARRAZKILARIAK

III. IBARRA GALTZA KOMIK KOMIKI LEHIAKETA 2010

Komikilariak eta bertsolariak Galtzaundiren afari-txouan

Bat batekotasuna, euskara eta algara. Hori du helburu Galtzaundik antolatuta datorren azaroaren 12an Tolosako lurre elkartean egingo den txouak. Dani Fano eta Asisko Urmeneta komikilariak eta Bixente Gorostidi eta Unai Muñoa bertsolariak bat batean arituko dira bertan. Batzuk marrazten ari diren bitartean, bertsotan ariko dira besteak. Elkarri buruz, bertaratutakoei zuzenduz. Euskaraz gozatzeko aukera izango da, beraz, afarian. Horretan artistak dira komikilariak eta bertsolariak. Eta, hori da Galtzaundik antolatu duen afari-txou honen helburua ere: euskaraz gozatzea.

Igor Mujika

Bertsolariak eta marrazkilariak elkartzeak zer ekarriko duen Dani Fanori galdetutakoan, hala erantzun digu: "bertsolariak eta marrazkilariak elkartuta, batek daki zer aterako den. Elkartruke bat da. Azken finean, inprobisazioz egindako txoua izango da". Dani Fanok eta Asisko Urmenetak ez dute ezer prestatua eramango afarira. Afarian sentitzen eta ikusten dutenaren arabera egingo dituzte marrazkiak. "Inprobisatzea gustatzen zaigu eta bertan gaudenetako edonor agertu gaitezke guk egindako marrazkietan".

Txoua hasi aurretik, bapo afalduko dute bertaratutakoek. Sarrerakoak, entsalada epela, txerri xolomoa hirugiarrarekin, postrea, kafea eta kopa jan eta edateko aukera izango dute. Ura, sagardoa eta ardoa ere izango dira edateko. Txartelak 25 euroren truke -22 euro bazkideak- salduko dira Galtzaundiren egoitzan, eta, ahalik eta azkarren erosi behar dira. Euskaraz gozatuz, nahi adina barre egiteko gogoz denarentzat aukera ezin hobea da azaroaren 12an Galtzaundiren ekimenez lurre elkartean egingo den afari-txoua, beraz.

Komiki bildumak

"TeleATOI" komiki bilduma kaleratu du aurten Dani Fanok Ikastolen Federazioaren eskutik. Hidrokarburoaren garaia amaitu den eta erregai gisa Arabako patata erabiltzen den mundua irudikatu du Dani Fanok. XXII. mendean gertatuko omen da hori.

Donostiako komikilariak azaldu digunez, komiki bilduma honetan "espazio ontziak konpontzen batere trebeak ez diren talde baten narraskeriak kontatzen dira". Hondatuta dagoen zamaontzia Vespa galaxian dago. Bere helburua Agurain II planetara iristea da. Hidrokarburo enpresa zital batek mertzenario batzuk bidali ditu, ordea, zamaontzi horretan dauden kalabazak pozointzera. Komiki lan honetako protagonista "galtzaile petoa da. Zerbitzu sekretuetako ikaslea izanik sekreturik gordetzen ez dakien pertsonaia da. Behin eta berriz kale egiten du". "TeleATOI" bildumako komikiak Xabiroi aldizkarian argitaratu dira, atalka. Adin guztietako pertsonei zuzendutako komiki bilduma da, eta, liburu dendetan erosi daiteke 12 euroren truke.

Asisko Urmenetak, berriz, "Okatxu, hegal egiten" izenburupean bildu ditu komikiak. Bertako protagonista, Garaziko inguruetan jaio berria den Okatxu arkumea da. Bere begietatik beste pertsonaiak ezagutuko ditugu. Udaberrian mendian izango dituenak: ama eta beste axuriak, artzaina eta zakurrak, koiote amerikar euskalduna eta mendizale bizkaitarrak,... Udazkenean, berriz, menditik jaitsitakoan ondoan izango dituenak.

Euskal Herriko Artzainak elkartetik jaso zuen komiki lan hau egiteko proposamena

Asisko Urmenetak. Artzainen lanaren nondik norakoen berri modu modernoan ematea zen artzainen helburua eta, Mattin Irigoien gidoilariak egindako gidoiari jarraiki, berehala hasi zen lanean Asisko Urmeneta. Asisko Urmeneta komikilariak, Mattin Irigoien gidoilariak eta Adur Larrea koloristak egindako lanaren emaitza da aipatu komikia.

"TeleATOI" eta "Okatxu, hegal egiten" azaroaren 12an egingo den afari-txouan erosi ahalko dituzte bertaratzen direnak.

Galtzakomik lehiaketa

Galtzaundiren egoitzan hasiak dira jada Galtzakomik komiki lehiaketan parte hartu asmoz egin diren lehen komikiak jasotzen. Azaroaren amaiera arte jasoko dira Nafarroa etorb., 6; 20400 Tolosa helbidea duen egoitzan komikiak eta, Galtzaundiko komikilari Joseba Antxustegietxartek, marrazki bizidunen egile Juanba Berasategik, Berriako komikigile Iñaki Martiarena "Mattin" -ek, Tolosako margolari Iñaki Epeldek, Tolosako margolari Jose Luis Longaronek eta ETB-ko aurkezle Kike Amonarrizek osatutako epaimahaiak saritutako komikiek, sari pottoloak jasoko dituzte.

ALDATZ Kristaldegia
Mota guztiako beirak
Bainu eta dekoraziorako ispiluak
Beirate artistikoak
Dutxa-itxiturak
Tel./Faxa: 943 674 845
kristaldatz@euskalnet.net
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA

Saldias Miguel
CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA
N. D.G.S. J.1759
Bizi-aseguruak
Kotxe-aseguruak
Istripuak
Gaisotasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-aseguruak
Denda-aseguruak
Erretiroak
Inbertsio fondoak
SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
www.saldias-miguel.com

Tolosa Bit
Informatika Zerbitzuak
Oria kalea, 14-behea
Tolosa - Tel.: 943 676 156
Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net
www.tolosabit.es

Ekaitz Saralegi
“Berdin jarraitzea eskatzen dut, aurreneko mailako onenekin”

1979ko Asegarceko pilotari amezketarra gustura dabil azken bi urtetan pilota munduan. Bere ibilbideaz eta 4 t’erdiko txapelketaz mintzatu gara 2001ean Tolosako Beotibar pilotalekuan estreinaldia izan zuen aurrelariarekin.

Naiara Roldán de Aránguiz

Urriaren 24, igandeko partiduan, Barriolaren aurkako 4 t’erdikoan mina hartu zenuen ezker hankan paretaren kontra joz. Ondo al duzu, ondoriorik?

Bigarrengo tantoan pareta jo nuen, golpe handia hartu nuen. Banekien golpea zela, baina hanka lurrean ezin jarri eta txingurrituta gelditu zitzaidan. Eta sustoa ere bai, gehiago izatea ere bazeukan. Azkenean kolpea izan zen eta eskerrak.

Partidu horren balorazioa egingo al zenuke?

Partidu erdira arte ondo jokatu nuen, Barriolak saketik asko sakatu zuen eta min izugarria egin zidan hortaz sakean. Ondo jokatu nuen 13. tantoa arte baina Barriola zerbaitegatik da ona, 4 t’erdia asko jokatzen du. Bera ni baino gehiago izan zen. Partidua amaituta bera zoriondu eta kito.

Barriola hankatik operatuta egotean, nire jokoak ez dio ondo egiten, normalean airetan nola jokatzen dudan, bere belaunentzat han aurrekoan ibiltzea txarra da. 4 t’erdian nik zertxobait jokatzen dut eta berak ere bere beldurra izango zuen baina bera ohituta egonda lasai egongo zela ere pentsatzen dut.

Zein iritzi duzu 4 t’erdikoaz? Zein aterako da txapeldun?

Betikoak ibiliko dira. Orain asteburuan jokatuko dute Bengoetxeak eta Barriolak, hauen bien artean irabazten duenak -Barriola azkenean garaile- final aurrekoetan sartuko da eta Irujo eta Gonzalez ere hortxe ibiliko dira.

Zein da pilotari batek egin beharreko eguneroko lana? Eman entrenamendu, elikadura eta medikuntza kontrolen berri.

Normalen astelehenean polideportiboan gelditzen gara, gimnasiora joan eta gero arratsaldean libre izaten dugu. Asteartean Beotibarren pilotan entrenatzen dugu, asteazkenean berriz gimnasiora joaten gara Tolosan, Usabalera; ostegunean, pilota entrenamenduak berriro ere eta normalean ostiralean jai egiten dugu asteburuan partidua jokatzeko. Batzuetan ostiralean ere partidu aurreko eguneko saioak egin izaten ditugu. Asteburuan normalean partidua jokatu eta astean ia egunero entrenatzen dugu.

Anti-doping-ik eta ez ditugu izaten, batzuek finaletan egin behar izaten dituzte. Bestela normalean urtean bitan esfortzu-proba egiten dugu eta hilabetean behin medikuarekin biltzen gara. Enpresa aldetik medikuek ondo kontrolatzen gaituzte eta jana ere begiratzen digute. Zer jan esaten digute baina normalean bakoitzak badaki zer jan behar duen, aste barruan denok kontrolatzen dugu zer jan baina asteburuetan berez gehixeago jaten dugula uste dut.

Denboraldi aurreko kontzentrazioak garrantzitsuak izaten al dira?

Ekainean egiten dugu kontzentrazio hori, 3 egunekoa. Gehien bat, pilotariak elkarrekin egoteko egiten dugu, urte osoan elkarrekin egoten gara baina hiru egun horietan ezberdina izaten da. Urteko hiru egunik onenak izaten dira. Nahi duguna egiten dugu; nahi badugu futbolean, saskibaloian, aritzeko aukera izaten dugu, libre uzten gaituzte eta nik uste eleganteena hori dela urte osoan.

Gustura al zaude egindako lanarekin? Urteko balorazioa egingo al zenuke?

Iaz 4 t’erdiko txapelketan Xalari irabazi nionetik, II. Mailako txapelketa polita jarri zen; finalera heldu ginen, galdu egin genuen baina I. mailan ere bikoteka sartu ginen Asier Olaizolaren partez. Gero San Fermin Torneoa jokatzen aritu naiz, San Mateotakoa ere bai. Orain momentuz behintzat goran nago eta espero goran jarraitzea.

Zer sentsazio izaten duzu frontoira atera eta herritarrak -lagunak-familia festa giroan partiduaz disfrutatzen daudela jakitea?

Ez zait askotan tokatu baina tokatu zaidanean polita izaten da. Pilotari batzuk ohituta daude baina ni ez nago ohituta, batzuetan tripetan kilima batzuk sentitzen dira. Azkenean zuk badakizu zertara joaten zaren, partidua jokatzera, normalean nerbioak izaten dira baina jakinda noski partidua jokatu behar duzula.

Zein iritzi duzu azkenaldian sortu den eztabaidaz, Nitro torneoan, Antena 3 enpresak berak erabakiko duela atsedena noiz egin, publizitate tarteak noiz sartu?

Enpresa bezala, enpresak berak agintzen du non jokatu behar duzun eta zu hara joan eta jokatzen duzu. Kontu honekin berdina gertatzen da; telebistak pagatu egiten du eta gu ere askotan telebistagatik jokatzeko aukera izaten dugu, hortaz telebista atseden batengatik ez gara kexatuko. Normalean banakakoan bost atseden izaten dira eta bost atseden horietatik bostak ez dira erabiltzen. Egia esan, atseden batengatik, telebistak eskatzea ez du gehiegi suposatzen. Azkenean, haiek ordaindu eta horixe egin behar.

Ameriketako Estatu Batuetan ibilia zara pilotan jokatzen, Las Vegas-eko frontoiek eta Euskal Herrikoek antzekotasunik ba al dute?

Ez. Han, Bakersfield-en jokatu genuen, euskal jendea biltzen den tokian, euskaldunek urtero egiten duten festa handian jokatu genuen. Frontoi lehor bat da, partidu hura gainera 35era jokatu genuen, festa giroan, musikarekin. Egia esan oso-oso ezberdina izan zen.

Zein amets duzu pilota munduan?

Orain momentu honetan berdin jarraitzea eskatzen dut, aurreneko mailako pilotari onenekin. Urte t’erdiko kontratua geratzen zait eta zertxobait luzatzen bada askoz hobeto. Krisia nola dagoen ikusita pilotatik ahal den gehiena bizitzea garrantzitsua da.

dida

Frontoi bat?

Tolosakoa, Beotibar. Hemen entrenatzen naiz astean hiru aldiz eta maisua, Anizeto Lazkano, hemen daukat, berarekin ondo moldatzen naiz. Hemen berarekin, etxean bezala sentitzen naiz.

Zer nahiago banakakoa edo bikoteka?

4 t’erdian banaka gustura jokatzen dut baina nahiago binaka jokatu.

Pilotari bat bikoteka aritzeko?

Lagun bezala, Begino batekin gustura jokatzen dut, asko ematen diolako eta nik ere pilota errematatzeko aukera izaten dut.

Eta kontrario?

Egia esan Titinen kontra jokatu dudanean ilusioa egin dit.

Maniaren bat frontoira atera baino lehen?

Ez, ez dut maniarik izaten.

Zure partiduak telebistaz ikusteko ohiturarik?

Gaizki jokatzen badut, seguru ezetz. Ondo jokatuz gero, amak edo grabatzen badu agian ikusiko dut.

Juan Larrazpu
eraikuntzak, s.l.
• Baserrietako igeltseritza eta egurrezko estrukturetan adituak.
• Etxeen berrikuntzak: - Fatxadak - Teilatuak - Sukaldeak - Baimu gelak, etab...
Tfnoa: 665 718 966
Jon Arruti (Orio)

Arnetze
LORATEGIA CB
Etxebarru zein kalerako lorak.
Lorategi lanabesak.
Lora legor
eta apaindura tresnak.
Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel.: 943 673 118 Tolosa

shanti kirolak
Rondilla, 11 bis
Tel.: 943 674 074
Tolosa

irakurri entzun Ikusi

Hiri Gorritik
Asier Serrano

Hiria da Asierren eremu naturala. Giro ustela darion hiri kaotikoa ezagutzen du, bertan bizi den gizaki galtzailea bezainbat. Hala ere, aitortzen du biharamun hobe baten peskizan dabilela. Asier Serranok atzean utzi ditu gazte garaiak, baita inprobisazioa ere; bere lanak programatu eta kalkulatu egiten ditu orain, helburu garbien bila. Bidea malkartsua suertatzen zaio askotan, izan ere, zoriontasuna gorputzari onuragarri zaiola jakin arren, bihozminak eta atsekabeak garatzen ditu adimena eta gogoa, eta poetak, nahitaez, joera horri eusten dio.

Euskal Herriko Lur Maitea

Euskal Herriko Lur Maitea 1960 hamarraldiaren bukaeratik 1980ko harraldiaren hasiera bitartean argitaratutako hainbat erregistro musikalen laburpena da. Bilduma hau 40 grabaziok osatzen dute CD bikoitzean, jatorrizko abestiak guztiak ere, gure oroimenerako ezinbestekoak. Lehenago argitaratutako GU GIRA bildumari jarraipena ematera dator.

Amerikanuak
Nacho Reig

Amerikanuak dokumentalak Nevadako (AEB) Elko herrira joandako zenbait immigrante euskaldunen historia kontatzen du. Funtsean, nostalgiari buruz hitz egingo digu, herrialde arrotz batean bizitza duina eramateko borrokari eta komunitate bateko kide sentitzeari buruz.

Azaroaren 5etik 19ra arteko

hitzorduak

Antzerkia
Robot Maitea. Marie de Jongh taldea.
Azaroaren 6an, 17.00tan, Tolosako Topic-en.
'Robot Maitea' istorio fantastikoa da, gizatasunari buruz gogoeta egiten laguntzen duena, gizakiaren ezaugarriei buruz, sentimenduei buruz, emozioei buruz… Arazoak gainditzeko dugun gaitasunaz hitz egiten du, ditugun mugetaz eta baita gure gaitasun mugagabeez ere.

Musika
Bonberenea
Azaroaren 13an, larunbata. Zea Mays.

X. Mus txapelketa azkarra
Azaroaren 13an, larunbatean, 16.30ean. Fronton Kafetegiak antolatuta eta Beotibar pilota-lekuan ospatutakoa. 8 sari banatuko dira 1.200 eta 100 euro artekoak.
Jokoak 4 erregetara, 6 hamarreko, 3 ustelera jokatuko dira. Bikote bakoitzaren ordainketa 30 euro Fronton Kafetegian. Epaileen erabakia mugagaitza izango da. Txapeldunak 2011ko munduko txapelketa aurretikoetara gonbidatuta daude.
Aldez aurretik izena emateko: fronton@jeub.org edo 943 65 14 70.

Amezketako kultur astea
Azaroaren 6 eta 14 bitartean.
Azaroaren 6an, larunbatean, 13.00etan Kultur Etxearen Inaugurazioa eta 19.00etan Iban Gurrutxagaren Trifidus jazz-blues taldea. Gauean Ugarten afaria ospatuko da, txartelak salgai urriaren 29 arte herriko tabernetan.
Azaroaren 7an, Albitzuri-Aundi harriaren altxatze txapelketa Larrunarri pilotalekuan.
Azaroaren 8an, 20.30ean Sara Gomezen 'Illunpeko bidaiak' erakusketaren aurkezpena eta ondoren 'Alex, nire laguna' liburuaren aurkezpena, Mikel Gurratxagak idatzi eta Maite Gurrutxagak ilustratutakoa. (Etxepare Saria).
Azaroaren 9an, Joxe Mari Otermin Amezketako etxeen historiari buruzko solasaldia.
Azaroaren 10ean, 'Txindokiko gora-beherak' mahai-ingurua. Partaideak: Luis Mari Larreta, Ibon Artola, Iker Karrera eta Patxi Caminos, Bixente Gorostidiren gidaripean.
Azaroaren 11n, San Martin eguna. Erromeria, meza San Martin elizan, bertsotan Bixente Gorostidi eta Anjel Mari Peñagarikano eta trikiti doinuekin Laja eta Landakanda. Bazkaria Errekalden eta umeentzat jangelan puzgarriekin.
Azaroaren 12an, herriko gazten dastaketa.
Azaroaren 13an, herriko gazteen eta Errealeko beteranoen arteko lehia futbitoan eta herri kiroletan.
Azaroaren 14an, azoka berezia.

Orexako kultur hamabostaldia
Urriaren 27tik azaroaren 6ra bitartean.
Azaroaren 5ean, ostiralean, 22.30ean Patxi Saizek eskainitako kantaldia.
Azaroaren 6an, larunbatean, 21.00tan herri afaria eta ondoren gau erdian Gari eta Iñaki trikitilariak eta amaituta DJ Bull.

Berastegiko kultur astea
Azaroaren 4tik 14ra bitartean.
Azaroaren 4an, Idoia Sanchez ipuin kontalaria eta "Senegaletik pateran etorritako baten esperientzia" hitzaldia.
Azaroaren 5ean, "Pista jokoa" haurrentzako eta ondoren helduentzat "In vino fabula" izeneko ardoaren historiari buruzko ipuin kontalari berezi bat Koldo Amestoy eta Patxis Vidar-en eskutik.
Azaroaren 6an, II. Arroz-esne txapelketa eta ondoren gaztaina erretzea.
Azaroaren 7an, "Musika tresnen lantegia" eta ondoren eskulanen tailerra eta txokolatada. Berastegiko aitona-amonen "Ahotsak" eta istorioak.
Azaroaren 12an, haurrentzat DVD emanaldia eta ondoren Enekok eta Miyukik eskainitako "Hego Amerika tandemean" ikus-entzunezkoa.
Azaroaren 13an, mus txapelketa azkarra herrikoia eta Gazteen II. Duatloia. Jarraian, Paulo Iztuetaren liburuen aurkezpena. "Berastegi iraganetik gaur egunera". Eguna amaitzeko abesbatza eta bertso saioa.
Azaroaren 14an, XII. Azoka Eguna. Goizean zehar, herriko produktuak eskuragai: barazki, gazta, ezti, eskulanak. Gazta txapelketa, I. Euskal oilo erakusketa, III. Ardi-ahari eta bildots txapelketa eta III. Animali erakusketa. Egunean zehar Luis Erasoren egur lanak ikusgai bere tailerrean.

Sukaldaritza ikastaroa
Berdinbidek antolatuta 'I. Sukaldaritza Ikastaroa Gizonezkoentzat', ikastaroa astearte eta ostegunetan ospatuko da, arratsaldeko 19.30ean.
Azaroaren 9 eta 11n. Tolosako Kasinoan, Zuloaga Txiki jatetxeko Iñaki Etxeberria.
Azaroaren 16 eta 18an. Ero Etxe Elkartean, Fronton jatetxeko Roberto Ruiz eta Sonia Tapia.
Azaroaren 23 eta 25ean. La Jara Elkartean, Botarri jatetxeko Txemari Esteban.

II. Euskal Herriko frisoi txapelketa
Azaroaren 6an, larunbata. (10.15-13.30). Tolosako Feria-lekuan. Euskal Herriko ustialekuek parte hartuko dute eta hobekuntza genetikoaren eta ganaduzaleen eguneroko lanaren bidez lortu diren lorpenak ezagutzera emango dira.
Azaroaren 9an, asteartea. Arratsaldeko 19.00etan, Tolosako Kultur Etxean. Sergio Calsamigliak eskainitako 'Esnearen kontsumoa eta gure osasunari buruzko errealitate eta mitoak" hitzaldia.

Hitzaldia
Azaroaren 17an, asteazkena, Tolosako Engels Ateneoan Euskal Herria Sozialista eta Engels Ateneoak berak antolatuta 'Venezuela. Gezurrik ez iraultzaren aurka! Elkartasuna langileen borrarekin kapitalisten sabotajeen aurka!'. Hizlari lanetan, Felix Martinez, Mitsubishi fabrikako agintari sindikal Venezuelarra, UNETE sindikatuko kidea eta PSUV alderdiko kidea.

Tolosaldean IKASTN
Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

http://www.ikastn.com

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazionatutako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Ohiko eragiketak laborategian	2010eko Azaroa	40
Biltegiko segurtasuna	2010eko Azaroa	30
Biltegiko prozedurak	2010eko Azaroa	30
Fruta-arbolen inausketa eta landatzea	2010/11/09	12
Sukaldaritza	2010/11/09	9
Officeko teknikaria	2010/11/15	210
Internet eta e-administrazioa	2010/11/15	20
Behi pirenaikoen epaileen trebatzea	2010/11/16	10
Hidroponia uretan	2010/11/16	4
Ordenagailua. Ingurua eta mantenua	2010/11/22	40
Berokuntza instalazioen muntaia	2010/11/22	40

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa
Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Posta-e: info@ikastn.com
Webgunea: www.ikastn.com

Goardiako farmaziak

Ostirala, 5
Santamaria I.
(Nafarroa etorb. 2)
Tolosa

Larunbata, 6
Azpiroz L.
(Amaroz 9)
Tolosa

Igandea, 7
Iturrioz I.
(Euskal Herria, 3)
Ibarra

Astelehena, 8
Tolosa Mª Isabel
(Nagusia, 7)
Tolosa

Asteartea, 9
Ugarte, Mª Teresa
Euskal Herria, 46
Ibarra

Asteazkena, 10
Bronte C.
(Korreo, 20)
Tolosa

Osteguna, 11
Olarreaga J.
(Korreo kalea, 2)
Tolosa

Ostirala, 12
Olarreaga M.
(Martin J. Iraola, 10)
Tolosa

Larunbata, 13
Echeveste Jesus M.
(Gernikako arbola, 3)
Tolosa

Igandea, 14
Morant R.
(Zabalarreta, 1)
Tolosa

Astelehena, 15
Tolosa Mª Isabel
(Nagusia, 7)
Tolosa

Asteartea, 16
Santamaria I.
(Nafarroa etorb. 2)
Tolosa

Asteazkena, 17
Azpiroz L.
(Amaroz 9)
Tolosa

Osteguna, 18
Ugarte, Mª Teresa
Euskal Herria, 46
Ibarra

Ostirala, 19
Bronte C.
(Korreo, 20)
Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketa-Abaltzisketa-Albiztur	
Osasun zentroa	943 653 212
Altzo	
Medikua	943 654 737
Anoeta-Alkiza-Hernialde	
Medikua	943 652 339
Baliarrain	
Medikua	943 889 003 (asteazk.)
Berastegi-Elduain	
Medikua	943 683 361
Bidegoian	
Medikua	943 681 134
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	
Osasun etxea	943 672 411
Ikaztegieta	
Medikua	943 653 329
Irura	
Osasun zentroa	943 690 720
Tolosa	
Anbulatorioa, larriald.	943 650 931
San Esteban, hitzordua	943 006 800
Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Amarozko dispensarioa	943 672 637
Asunzion klinika	943 675 799
(larrialdiak)	943 675 390
San Kosme San Damian geriatrikoa	943 672 932
Udaltzaingoa	943 675 858
Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Iurreamendi egoitza	943 670 325
Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
DYA	943 672 536
Gurutze Gorria	943 674 888
	943 651 425
Ertzantza	943 673 022
Tolosa Gasa	943 675 320
Lizartza	
Medikua	943 682 077
Orendain	
Medikua	943 655 595
Orexa	
Medikua	943 682 228

NISSAN
SANTA LUZIA GARAJEA
Grua zerbitzua 24 orduetan
943 653 491
943 653 874
943 653 985
943 806 020
Santa Luzia, 1-TOLOSA

Errotulazioa & irudia
Vicente
www.rotulosvicente.com
943 69 02 94
taller@rotulosvicente.com
Laskibar balara 25, 1-04 atea
20271 Irura (Gipuzkoa)

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa
• Gortinak
• Edredoi nordikoak
• Mantak
(bat erosita beste bat opari)
• Ohazalak
• Alfonbrak
etab.
Donostia
San Martin, 16
943 425 886 - 943 420 187
Donostia
Garibai, 8
943 420 259 - 943 430 947
Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615 - 943 671 149

Muxutruk

Lana

- Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621
- Ingeleseko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

Etxebizitza

- Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. 645 718 536
- 60m²-ko pisua salgai Berazubin. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843
- Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125
- Pisu edo apartamentu baten bila nabil alokairuan hartzeko. Tolosan edo inguruan. 656.744.115

Salgai

- Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512
- Igini markako akordeoia saltzen da. Tamainaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxoa opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800
- Oruga karretila salgai. Honda HP 500, ia berria. 943.69.47.36 / 618.18.53.37

Horoskopoa

Azaroaren 5etik 19ra arteko aurreikuspena

aries
Martxoak 21-Apirilak 21

Maitasun kontuetan hotz egongo zara, zure alor bakartia atera eta zure bikotekidea albo batera utziko duzu, lagunei kasu gehiago eginez. Honi irtenbidea bilatu beharko diozu, baliteke zure bikotekidea aspertzea.

taurus
Apirilak 22-Maiatzak 21

Maitasun kontuei dagokionean oso egun esanguratsuak izango dira. Bikotekiderik ez baduzu abentura bat baino gehiago izateko aukera, hauetariko bat epe luzerako erlazio bihurtzeko aukera. Bidaiatzeko abagunea eta bertan garai bateko pertsona batekin topo egiteko parada.

gemini
Maiatzak 22-Ekainak 21

Egunerokotasunak irentsi egin zaitu, bertatik ateratzeko ideia bila hasi beharrean zaude. Arlo profesionalari dagokionean arrakastez beteriko egunak, diru kontuetan zorteko izango zara. Atzerrira joateko aukera.

cancer
Ekainak 22-Uztailak 22

Lanik gabe bazabiltza berriak jasotzeko unea heldu da, arlo berri batean lanean hasteko aukera. Maileguak eskatzeko momentu txarra da.

leo
Uztailak 23-Abuztuak 22

Zure bikotekidearekin hobeto komunikatzen ikasi behar duzu gaizki ulerturik egon ez dadin; arrazoia beti duzula pentsatzeko joera duzu eta hori ez da batere onuragarria bikote erlaziorako. Lan kontuetan sormena lantzeko unea.

virgo
Abuztuak 23-Irailak 22

Enpresan lanpostu ona lortu duzu, zure lankideen oniritzia eskuratu duzu eta hori dela eta beste pausu bat emateko ausardia izan beharko zenuke. Etxe hori buruan sartu eta ezin ahaztu zabiltza, egoera oso ondo aztertu ezazu.

libra
Irailak 23-Urriak 22

Maitasun kontuetan erabaki garrantzitsuak hartzeko garaia, zure bikotekidearen babesa izango duzu. Bikotekiderik gabe bazabiltza zure lagun koadrilan maitasuna topatzeko aukera. Familiartean tentsio uneak sortuko dira.

scorpius
Urriak 23-Azaroak 22

Familiartean lasaitasun garaiaz gozatuko duzu eta horrek betetasun sentimendua sortuko dizu. Lanean zure esfortzuaren fruituak jasotzen hasiko zara.

sagitarius
Azaroak 23-Abenduak 21

Erronkez beteriko egunak, maitasunean oztopoei aurre egin beharra, ulertzen saiatzen zara baina kostatu egiten zaizu, arazoei aurre egiteko laguntza behar izaten duzu. Ekonomiari erreparatu iezaiozu.

capricornius
Martxoak 21-Apirilak 21

Ezkortasuna alde batera utzi eta maite dituzun pertsonei erakutsi iezaiezu eurengan konfiantza duzula; aurkezten zaizkien zalantzak alboratzen lagundu beharko diezu. Lana besterik ez duzu buruan eta hori ere ez da batere ona izaten.

aquarius
Urtarrilak 21-Otsailak 20

Etorkizun handiko egunak, pertsona horrengan konfiantza izaten hasiko zara, zerbaitetan gauzatu da zuena, ez izan zalantzarik. Erronka berriei aurre egiteko indartsu zaude. Ekonomiari dagokionean ez dira garai onak, hautabidea bilatu beharko duzu.

piscis
Martxoak 21-Apirilak 21

Sari eta aintzatespen garaia, aurrera egiten trebea zara. Maitasun kontuak oso baikorrak izango dira; dibertimendua, maitasuna, ulerkuntza, eztitasuna… denetarik izateko aukera.



Komikia: Joseba Antxustegietxarte

HILETAREN BALIOA

Antzinako Egipto

70 EGUN behar izaten ziren gorputz bat baltsamatzeko

6.000 € kostatuko litzateke gaur egun gorputz bat baltsamatzea

2,3 MILIOI harrizko bloke erabili ziren piramide handian

3.500 GAUZA balio handiko aurkitu zituzten Tutankamonen hilobian

Funeraria Vacongadan ere pentsatzen dugu pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskuraezina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

25 urte TOLOSAN

www.funerariavascongada.com
24 orduko zerbitzua: 902 402 900

A+ Arplus